JULEN ARZELUS ▸ ZEREN ZAI TALDEKO ABESLARIA

Julen Arzelus abeslaria —ezkerretik hasita laugarrena—, Zeren Zai taldeko kideekin batera. ZEREN ZAI

«Zuzeneko emanaldietan taldearen freskura nabariagoa da»

'Gure uhartea' lehen maketa aurkezten ari dira Zeren Zai taldekoak; gaur Fnac forumean kontzertua eskainiko dute, 20:00etatik aurrera

NAGORE IRASTORZA

Pop-rock melodikoa egiten duten arren, musika aldetik eragin desberdinak jaso dituztela aitortzen dute Donostiako Zeren Zai musika taldeko kideek. Orain bi urte sortutako taldea, poliki-poliki bere ibilbidea egiten ari da. Julen Arzelus abeslariak taldeari buruzko xehetasunen eta aurrera begira dituzten asmoen berri eman digu.

Noiz eta nola sortu zen Zeren Zai musika taldea?

Duela bi urte inguru sortu zen. Hasieran, ahotsak, bateriak, gitarrak eta baxuak osatzen genuen taldea, baina ondoren, teklatu eta tronpeta jolea batu zitzaigun. Beste talde batzuetan ibilitako lagunak ginen eta musika egiteko gogoz elkartu ginen.

Nola definituko zenuke egiten duzuen musika?

Pop-rock musika egiten dugu, nahiz eta bakoitzaren jatorriaren ondorioz, estilo desberdinen ukituak ditugun. Kantu batzuk rockeroagoak dira eta besteek, pop ukitu handiagoa dute. Orain arteko guztiak nahiko melodikoak dira, baina aurrera begira, rock kutsu handiagoa eman nahi diogu.

***Gure uhartea* maketa kaleratu zenuten iaz. Zer jaso duzue maketan?**

Zazpi kantu bildu ditugu maketan. Letrei dagokienez, gai sozialak eta maitasuna dira nagusi. Ez dira aldarrikapenekoak, baina letrei garrantzia ematen saiatzen gara. Gai horien inguruan gure ikuspuntua ematen dugu.

Maketaren emaitzarekin gustura al zaudete?

Etxean egindakoa dela kontuan hartuta, gustura gelditu ginen emaitzarekin. Sarritan entseatzen zaudenean, ezin duzu musika ondo entzun eta grabatuta entzun arte ez zara konturatzen emaitzaz. Beraz, grabaketaren ondoren, egindakoarekin gustura geratu ginen. Hala ere, jendea gusturago dago zuzeneko emanaldietan, taldearen freskura nabariagoa delako.

Publikoaren aldetik nolakoa izan da harrera?

Oro har, ona izan da. Bereziki, Donostian eta Gipuzkoan eman ditugu kontzertuak eta harrera ona izan dute. Hasieran gaude oraindik eta gure burua ezagutzera ematen, beraz, gauzak ez dira errazak. Hala ere, Donostian jotzeko aukerak eskasak dira. Jaietan ez bada, ez dago emanaldietarako areto gehiegirik.

Donostia hiriko pop-rock lehiaketan parte hartu zenuten. Nolakoa izan zen esperientzia?

Proba moduan aurkeztu ginen lehiaketara. Guk ez dizkiogu ateak ixten inon aurkezteari. Maketa bat dugu eskuartean eta aurkeztea erabaki genuen. Hala ere, lehiaketetan parte hartzea ez da gure lehentasuna. Finalerdietara iritsi ginen eta gustura jo genuen. Taldea ezagutzera emateko aukera ere bada.

Non oinarritzen da Zeren Zai taldearen indarra?

Taldeak bere osotasunean du indarra. Ez da musika tresna bat edo ahotsa nabarmentzen, ez dago protagonismorik. Hori da bilatzen duguna, ez dadila monotonoa izan.

Zeintzuk dira taldearen nahiak edo helburuak?

Musika ondo pasatzeko eta egunerokotasunetik ateratzeko egiten dugu eta hori da helburu nagusia. Hortik aurrera gertatzen dena osagarria da, baina ez dugu nonbaitera iristeko helbururik.

Euskaraz egiten duzue. Zailagoa al da publikoarengana iristea?

Zoritxarrez, hala da. Hizkuntza sarritan muga bat da eta Donostian bertan euskaraz egitea arraro egiten da hainbat lekutan. Horrekin hautsi nahi dugu. Euskaraz komunikatzeko tresna bat da eta gure hizkuntza denez, bera erabiltzen sentitzen gara gustura.

Zeintzuk dira aurrera begira dituzuen planak?

Musika eginez gozatzen jarraitu nahi dugu. Kantu berriak konposatzeari ekingo diogu udara bukatu bezain laster eta bigarren maketa prestatzeko asmoa dugu. Bestalde, kontzertuak ematen jarraitu eta kantuak gehiago lantzeko asmoa dugu.

LETRAK

«Gai sozialak eta maitasuna dira nagusi letretan. Ez dira aldarrikapenekoak, baina letrei garrantzia ematen saiatzen gara»

KONTZERTUAK

«Donostian jotzeko aukerak eskasak dira. Jaietan ez bada, ez dago emanaldietarako areto gehiegirik»

EUSKARA

«Donostian bertan euskaraz egitea arraro egiten da hainbat lekutan»